

# A.7.3. ARTEGIETA

A.7.3. ARTEGIETA

Azalera: 29.757 m2

I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak

Bustindui, Artegieta eta Karlos Elgezua kaleek mugatzen dute area hau.

Lehendik dauden eraikuntzak finkatzeaz gainera, hau proposatzen da zona honetan:

* Artegieta kalearen 3 eta 5. zenbakien arteko hiri hutsunetxoa betetzea. Jolas eta aisiarako espazio bat sortzea goialdean, proiektatutako eraikin berrien garapena aprobetxatuz, A.I. 105 01 Artegieta 3-5 Jarduketa Integratuarekin jasoko direnak; horren zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira

* Asola Igartza kaleko 1, 3 eta 5 zenbakietako eraikinak ordezkatzea, auzoaren zerbitzuan aparkalekuak sortzeko bidea emango duen antolamendu berri bat egin ahal izateko A.A. 106 01 Asola Igartza Jarduketa Isolatuaren garapenarekin burutuko dena; horren zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

* Auzokoen aparkaleku gisa erabiliko den eraikin bat sortzea Asola Igartza, Artegieta eta Karlos Elgezua kaleen artean A.A. 107 01 Artegietako Garajeak Jarduketa Isolatuaren garapenarekin burutuko dena; horren zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordezterakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2C "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak ", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera esanguratsuena Egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.

Planeamendu Gehituko Eremu bat sartzen da eremu honetan, eta horri dagokion ordenazio xehatua dagokion garapen planeamendura egokitu beharko da:

API 14 ASOLA IGARTZA 45. BJUaren XEHETASUNEZKO AZTERLANA
Azalera: 3.452 m2
Garapen Planeamendua:

* ASOLA IGARTZA 45 BJUren Xehetasunezko Azterlanak behin betiko onespena jaso zuen 2003ko abenduaren 22an egindako udal osoko bilkuran.